

## Bidebieta

## IRUXULO

**U**ltraje taldea 1999an sortu zen eta urte horretan bertan Irunen, Hondarribian edota Ibaetako campusean lehen antzezpenak egin zituen. Hala ere, ezadostasunak izan ziren taldekideen artean eta egitasmoa bertan behera geratu zen urte amaieran. Uda honetan, berriz, Julia Hernandez zuzendariak proiektuari heldu dio berriro ere. Bigarren saikera honetan 18 eta 28 urte bitarteko zazpi neskek osatu dute taldea eta obra berriak, oraindik ere izenbururik ez duen arren, emakumeen kezka eta arazoen berri emango digu. Juliak adierazi digunez, «alboko lagunak duenarekin amets egiten dugu egunero, eta obra honekin agerian utzi nahi dugu alboko lagun horrek, segurasko, guk baino

## Bidebietako krosa

Azaroaren leian, asteazkena, Bidebietako krosa jokatu da, bosgarren urtez. Helduek 7 kilometroko eta 300 metroko ibilbidea osatu beharko dute eta haurrek, berriz, 1.800 metrokoa. Atletiko Trintxerpek antolatutako lasterketa 10.00etan hasiko da.

Emakumeen arazoak  
taula gainean

Ultraje taldea lan berria prestatzen ari da



Argazkia: Elena Vifas

kezka eta arazo gehiago dituela». Antzezlanaren erdaraz da, oraindik ez dago amaituta, baina datorren hilabetean bertan obra bukatzea eta entseiekin buru belarri hasitea espero dute Ultraje taldekideek.

Testuak idazteko ardura ez da Juliarena soilik. Eva Rivas Kontadoresen laburmetraiak egiteko gidoiak idazten hasi zen eta lan honetan idazle eta aktore lanak uztartzen ditu. Evaren esanetan, «idazteari duela urte batzuk ekin nion. Ondoren, antzerki mun-

duan sartu nintzen. Gaur egun idaztea ezezik, eszenatokia lan egitea ere oso gustukoa dut».

Julia Hernandezek taldeak jarraipena izan dezan nahi du. «Jakin badakigu antzerki talde profesionala izatea ezinezkoa dela, baliabide ekonomikoak ez ditugu eta. Hala ere, kultur elkarte bihurtzea ez da hain zaila eta beraz, horrek izan behar du gure helburua». Talde honek, dena den, aurrerapausu handia emango du Kontadoresen aurkeztekoa den antzezlan berriarekin.

Zazpi emakume ari dira Ultraje taldean.

## Igor Urrestarazuren egoeraz kezkatuta

Igor Urrestarazuren alde sortutako plataforma kezkatu dago auzoko presoaren egoerarekin. Igor Urrestarazuk hiru urteko espetxe zigorra bete du Uzercheko kartzelan eta Espainiako poliziaren esku utzi dezakete. Espainiara eraman ez dezaten, euskal presoaren gose greban dago.

## Antigua autoeskola

- ORDENADOREA, karneta ateratzeko bide azkarra
- Teoria kurtso intentsiboak
- Baimenak: LCC-A1-A-B-BTP



Mikelete, 20 • Tel.: 21 65 51



GOI-MAILAKO SUKALDARITZA.

- EGUNEROKO MENUA.
- SAGARDOTEGIKO MENUA-3 AUKERA.
- LEKU-ZABALA.

RESTAURANTE  
SAGARDOTEGIAEUSKAL-HERRIA kalea, 8-TEL: 943 421913  
20003 DONOSTIA